Funtzionamendu araudia

Donibane Lohizunen
haur gaztearen harrera moldeen eskatzeko dosier bakarra

Sarrera

Haurraren eta burasoen beharrei egokitu harrera molde baten bilatzea urrats garrantzitsua da. Lehen haurtzaroa haurraren nortasunaren eraikuntzarako funtsezko garaia da.

Donibane Lohizuneko hiriak burasoen harrera beharrei erantzuteko xedea du. Hala, haurrei kalitatezko harrera eskaini nahi die eta haurrak baldintza hoberenetan izatea nahi du.

Horregatik, Herriko Etxeak, gainerako partaide guziekin, harrera kolektiboa edo familiako harrera egiten duten formulak proposatzen ditu eta haurtzain bitartekaritza eskaintzen du ere haurtzain autonomo onetsien etxeetan haurren harrera moldeak errazteko.

Harrera egituretan aitzinetikako izen-ematea egiteko dosierra.

1- Dosierra eskuratu:

Familia batek herrian harrera molde baten abantaila izateko nahitaez aitzinetikako izen-ematea egiteko dosierra bete behar du.

Aitzinetikako izen-ematea egiteko dosierrak lehen haurtzaroaren gunean eskura daitezke. Familiek leku horietan eskura dezakete ere:

- Haurtzainen bitartekaritzan (RAM).
- Sagardian harrera anitzeko elkartean
- Itsas Argia herriko harrera anitzeko egituran
- Copains-copines haurtzaindegi ttipian.

2- Dosierra itzuli:

Onartua izateko, dosierra beterik itzuli behar da, **lehen haurtzaroaren zerbitzura**.
Horretarako, lehen haurtzaroaren koordinatzailearekin hitzordua har dezakezue, 06 15 50 43 37 telefono zenbakira deituz.
Lehen onarpenaren ondotik, dosierrak tokien esleipenerako batzordean aztertuko dira.

Kasu beraz, aitzinetikako izen-ematea egiteko dosierra beterik aurkezteak ez du

erran nahi haurra jadanik egitura batean onartua dela.

Tokien esleipenerako batzordea

1- Tokien esleipena:

Batzordeak dosierrak aztertzen ditu eta egituretako arduradunek tokiak esleitzen dituzte. Hiriko haurtzaroa eta gazteria zuzendaritzak du aitzinetikako izen-ematea egiteko dosierren jarraipena egiten. Igurikatze zerrendan gordetzen ditu.

2- Batzordearen bilkura egunak:

Batzordea urtean lau aldiz biltzen da:

- Martxoan, apiriletik ekainerako onarpenak aztertzeko.
- Ekainean, uztailetik irailerako onarpenak aztertzeko.
- Irailean, sartzeari buruz puntua egiteko eta urritik abendurako onarpenak aztertzeko.
- Azaroan, urtarriletik martxorako onarpenak aztertzeko.

3- Batzordearen funtzionamendua:

- Batzordea bildu baino aste bat lehenago, familiak e-mail bat jasotzen du bere eskaera balioesteko (data, lehen hautua, egun kopurua, ordutegia...).
  Familiak, e-mailari erantzunez edo telefonoz deituz, lehen haurtzaroaren koordinatzaileari aitzinetikako izen-ematea balioesten ahal dio.

- Burasoek aitzinetikako izen-ematean eman argibide batzuk aldatu nahi izanez gero, batzordearen bilkura eguna baino lehen jakinarazi behar dute.
  Aldaketa batzordearen bilkuraren ondotik egiten bada, eskaera berri gisa hartuko du batzordeak eta dosierraren aurkezpen eguna aldatuko du.

- Batzordean dosierrak ordena kronologikoaren arabera aztertzen dira, aitzinetikako izen-ematearen data eta familiaren hautuak kontuan hartuz.

- Zuzendariak tokiak esleitzen ditu, egitura bakoitzean dauden harrera aukeren arabera.

4- Onarpenerako irizpideak:

- Egituraren ahalak
- Bizitokia: Donibane Lohizune
- Donibane Lohizunen dendari diren, artisau diren edo lanbide liberala duten

burasoen haurrak (herriko harrera anitzeko egiturarentzat bakarrik)
- Dosierraren aurkezpen eguna
- Haurraren ahultasun edo elbarritasun egoera

5- Batzordearen iritziak

Aldeko iritzia baldin bada:

- Familiak e-mailez abisatzen dira, batzordearen bilkura eguna pasa eta 24 oreneko epean.
- Eta 15 eguneko epean familiari lehen haurtzaroaren ardura duen hautetsiak izenpetu baieztapen gutun bat helaraziko zaio ere.
- Ondotik, burasoek hamabost egun dituzte haurraren aitzinetikako izen-ematea baieztatzeko. **Egiturako arduradunari** jakinarazi behar diote hori, azken honek izen-ematea egin dezan.
- Burasoek epean erantzuten ez badute, beren haurrarentzat erreserbatu tokia berriz libratzen da eta igurikatze zerrendan dagoen beste familia bati proposatzen zaio.

Kontrako iritzia baldin bada:

- Familiak e-mailez abisatzen dira, batzordearen bilkura eguna pasa eta 24 oreneko epean
- Eta 15 eguneko epean familiari lehen haurtzaroaren ardura duen hautetsiak izenpetu baieztapen gutun bat helaraziko zaio ere.
- Haurtzainen bitartekaritzak (RAM) familiei beti beste haurtzain autonomo batzuen harrera proposatzen die.

Batzordeak igurikatze zerrenda bat osatzen du, batzordearen bi bilkuren artean haurrak harrera egituretan onartu ahal izateko.

AURRE IZEN EMATE TXOSTENA
Donibane Lohizuneko Lehen Haurtzaroko harrera egituran

ADMINISTRAZIOARENTZAT ATXIKIA DEN KOADRA – ..... (e)an eskuratua

Haurraren izen ematea

DEITURA		
Izena (ninia sortua bada)		☐ Mutikoa ☐ Neska
Sorteguna	Edo, sortzea ..... (e)ko aurreikusia	
Familian zuregain dituzun haur kopuruak (aintzinetikako izen emate haurra barne)	Haurdunaldi ainitz	
Etxean bizi diren haurren izen eta deiturak	Sorteguna	Behaketak
.....	.....	.....
.....	.....	.....
.....	.....	.....
.....	.....	.....
.....	.....	.....

Harrera modu desiratua

Harrera data desiratua (hilabetea / urtea)					
1— Sagardian errezibitze anitza	SAGARDIAN	☐ hautua 1	☐ hautua 2	☐ hautua 3	☐ hautua 4
2— Itsas argia errezibitze anitza	SAINT JEAN DE LUZ	☐ hautua 1	☐ hautua 2	☐ hautua 3	☐ hautua 4
3— Bere kontu ari den haurtzainae	SAINT JEAN DE LUZ	☐ hautua 1	☐ hautua 2	☐ hautua 3	☐ hautua 4
4— Copains et Copines haurtzaindegi ttikia	Micro-crèche Copains & Copines Saint-Jean-de-Luz	☐ hautua 1	☐ hautua 2	☐ hautua 3	☐ hautua 4

SAINT JEAN DE LUZ

Bteko beharrak

ASTELEHENA	ASTEARTEA	ASTEAZKENA	OSTEGUNA	OSTIRALA	LARUNBATA
.... : .... -etatik .... : .... -etara	.... : .... -etatik .... : .... -etara	.... : .... -etatik .... : .... -etara	.... : .... -etatik .... : .... -etara	.... : .... -etatik .... : .... -etara	.... : .... -etatik .... : .... -etara
Orotara ..... ordu astean					
☐ Urte osoan	☐ Eskolako oporretan	☐ Eskoletako oporretatik kanpo	☐ Ordutegi atipikoak		
Xehetasunak	....				

Familia Fitxa

1. ARDURADUNA	2. ARDURADUNA
Deitura	Deitura .....
Izena	Izena .....
Helbidea	Helbidea .....
E-mezu helbidea	E-mezu helbidea .....
Telefono zenbakia	Telefono zenbakia .....
Mugikor zenbakia	Mugikor zenbakia .....
Lanbidea	Lanbidea .....
Lantokia.....	Lantokia.....
☐ Denbora osoz ☐ Denbora partziala ☐ Gurasotasun geldialdia ☐ Formakuntzan ☐ Lan bila ☐ RSA	☐ Denbora osoz ☐ Denbora partziala ☐ Gurasotasun geldialdia ☐ Formakuntzan ☐ Lan bila ☐ RSA

Familiaren egoera	☐ Ezkondua ☐ Ezkontza bizia edo bizikidetasunezko hitzarmen	☐ Dibortziatuak ☐ Banatuak	☐ Ezkongabea ☐ Alaguna
Laguntza araudia	☐ CAF ☐ MSA	☐ Beste (zehaztu)	

Oraingo zaintza moduak

☐ Gurasoak ☐ Haurtzain onetsia ☐ Familia	☐ Kolektiboa ☐ Beste (zehaztu) .....

Bilaketak edo beste errezibitze eskaera bat egin ote dituzu ?

☐ EZ ☐ BAI - Zeintzuk .....

.....

Nik, naizen izenpetzaileak .....

☐ AITA ☐ AMA ☐ EDO LEGEZKO TUTOREA

Goian emandako xehetasunak egiak direla ziurtatzen ditut.

Deklarazio faltsu guziek auzitegi penalera jauki ditzakeela, zigor kodearen 441-7 artikuluaren arabera informatua izan naizela segurtatzen dut

Donibanen ..... -an

Izenpedura (ondoren « irakurri eta baieztatu aipamena egin »)

Eman behar diren dokumentuak gurasoengandik / legezko ordezkaria(r)

☐ 3 hilabete peko etxebizitza frogagiria	☐ Familia Ondoko liburuxkaren kopia

Nola pausatu zure izen ematea ?

Haurtzaro guneko koordinatzailearekin hitzordua hartu	06 15 50 43 37

Dokumentu hori, soilik aintzin izen emate eskaera bat da. Osoa ez den fitxa ez da tratatua izanen.

ADIMINISTRAZIOARI ERRESERBATUA

Dosierraren eguneratzea

Data	Eguneratzea

Lehen Xaurtzaro gunea, 6 urte peko publikoari zuzendatako harrera eta informazio gunea

Lehenhaurtzarogunea, Ixakahiribidea - Donibane Lohizune
Zenb. : 06 15 50 43 37
Email : enfance@saintjeandeluz.fr / www.saintjeandeluz.fr

Saint Jean de Luz

Sagardian harrera anitzeko elkartea

Toki kopurua	48
Zabalik	astelehenetik ostiralera
Ordutegia	08:00etatik 18:30era
Haurren adina	10 aste eta 6 urte artean
Gutieneko harrera	2 oren

Aurkezpena

Aldi berean harrera erregularra edo noizbehinkakoa uztartzen ditu egitura honek.
Lekuen eta ahalen arabera, larrialdiko edo laguntzazko harrerak egin daitezke.
Haurrak astean gutienez egun batez eta gehienez bost egunez errezibitzen dira, egun erdiz edo hainbat orenez.
Egitura abenduaren 25a eta urtarrilaren 1a artean hetsia da Salbatoreko zubi garaian hetsia da ere.
Diziplina anitzeko langile talde bat haurrez arduratzen da: zuzendari erizain haur artatzaile bat, haur gazteen hezitzaile bat, haur artatzailetza laguntzaileak, lehen haurtzaroko laguntzaileak, mediku erreferente bat, jantegiko langileak eta mantentze langileak.

Tokien esleipena

Tokiak horren arabera libratzen dira:

- Aitzinetikako izen ematea gorde den eguna
- Burasoen bizitokia eta lan tokia
- Haurtzaindegiaren ahalak
- Hartu beharreko familiaren edo haurraren egoera (adb: ahultasuna, elbarritasuna…)

Prezioak

Familia Sagardian elkarteko kide izan behar da (12 €).
Fakturazioa abiatzen da egokitze garaia (2 aste) hasten den orduko.
Familiari eskatzen zaion parte hartzea tarifa finko bat da eta familiaren diru baliabideen eta osaeraren arabera aldatzen da (**hemen kalkula daiteke: monenfant.fr**).
Haurra egituran dagoen denboran, apairuak eta higiene artak barne, egiturak haurra bere gain hartzen du. Xatarrak, oinarrizko produktuak eta esne artifiziala egiturak ematen ditu.

Argibideak:

Sagardian harrera anitzeko elkartea – 05.59.23.21.60 (Véronique DELAGE)
Habas etorbidea, 32 – 64500 Donibane Lohizune

« Itsas Argia » herriko harrera anitzeko egitura

Toki kopurua	24, haietan gehienez 12 egituran berean
Zabalik	astelehenetik ostiralera
Ordutegia	07:45etik 18:30era
Haurren adina	10 aste eta 6 urte artean
Gutieneko harrera	2 oren

Aurkezpena

Aldi berean harrera erregularra edo noizbehinkakoa uztartzen ditu egitura honek. Harrera indibiduala egiten du ere, haurtzainen etxean. Eta harrera kolektiboa egiten du Lehen haurtzaroaren gunean. Haurtzainak beren ardurapean diren haurrekin astean behin eta aldizka Lehen haurtzaroaren guneko langile taldean sartzen dira. Gainera, astean goiz batez, haurtzainak Lehen haurtzaroaren guneko aktibitate gela batean biltzen dira.
Lekuen eta ahalen arabera, larrialdiko edo laguntzazko harrerak egin daitezke.
Haurrak euskara-frantsesa giro elebidunean errezibitzen dira.
Haurrak astean gutienez egun batez eta gehienez bost egunez errezibitzen dira, egun erdiz edo hainbat orenez.
Egitura abuztuan hiru astez hetsia da (haurtzainek haurrak har ditzakete) eta Eguberriz aste batez hetsia da.
Diziplina anitzeko langile talde bat haurrez arduratzen da: zuzendari erizain haur artatzaile bat, haur gazteen hezitzaile bat, laguntzaileak, haurtzainak, mediku erreferente bat, psikomotrizitate hezitzaile bat eta psikologo bat.

Tokien esleipena
Tokiak horren arabera libratzen dira:
- Aitzinetikako izen ematea gorde den eguna
- Burasoen bizitokia eta lan tokia
- Haurtzaindegiaren ahalak
- Hartu beharreko familiaren edo haurraren egoera (adb: ahultasuna, elbarritasuna…)

Prezioak
Fakturazioa abiatzen da egokitze garaia hasten den orduko.
Familiari eskatzen zaion parte hartzea tarifa finko bat da eta familiaren diru baliabideen eta osaeraren arabera aldatzen da (hemen kalkula daiteke: monenfant.fr).
Haurra egituran dagoen denboran, apairuak eta higiene artak barne, egiturak haurra bere gain hartzen du. Xatarrak, oinarrizko produktuak eta esne artifiziala egiturak ematen ditu.

Argibideak:

Itsas Argia harrera anitzeko egitura – Tel: 07 63 59 42 21 (Marion BARADAT)
Lehen haurtzaroaren gunea – Itxaka etorbidea – 64500 Donibane Lohizune

Haurtzaina

Toki kopurua	-
Zabalik	astelehenetik igandera
Ordutegia	beharren arabera
Haurren adina	Zenbait aste eta 12 urte artean
Gutieneko harrera	Ez dago gutieneko harrerarik

Aurkezpena

Haurrak departamenduko Kontseilu Orokorrak onetsitako haurtzainaren etxean errezibitzen dira.
Orduan, **burasoak haurtzainaren enplegatzaileak dira**. Burasoek eta haurtzainak idatzizko lan kontratu bat eta harrera kontratu bat izenpetu behar dituzte. Harrera kontratuak haurraren eguneroko harrera baldintzak zehazten ditu: heziketa printzipioak, gogoa pizteko jarduerak, elikadura, loa, garbitasuna, joan-etorriak...

Haurtzainen Bitartekaritzaren **(RAM)** egoitza Lehen haurtzaroan gunean dago. Burasoendako, profesionalendako edo onespena jaso nahi duten haurtzainendako informazio gunea da.
RAM harrera indibiduala profesionalizatzeko lanean ari da.
Haurtzain autonomoak eta beren gain dituzten haurrak Lehen haurtzaroan gunera etor daitezke, RAMeko animatzailearekin tailer kolektiboetan parte hartzeko, adibidez.

Tokien esleipena

Tokiak horren arabera libratzen dira:
- Haurtzainaren ahalak
- Familiaren beharrak, haurtzainaren onespenarekin

Prezioak

Orduko kostua 2,68 € gordin (2,07 € garbi gutienez) eta 5,96 € gordin (4,58 € garbi gehienez) artekoa da, burasoek zaintza molde bat ala bestea hautatzeko diru laguntzaren abantaila izan dezaten.
Diru laguntza hau ez duten burasoentzat, orduko kostua libreki proposatzen da eta haurtzainarekin negoziatu behar da, baina, komunzki, gorago aipatu prezio tartean izan ohi da.
Haurtzain onetsiaren oinarrizko lansarian gutieneko oreneko soldata dago eta honi gehitu behar zaio haurraren presentziaren araberako garbiketa lanen eta apairuen ordainsaria.

Argibideak: RAM (Donibane Lohizune, Ziburu, Azkaine, Getaria, Ahetze)
RAMeko animatzailea: Constance BIDART (07.63.59.42.26)
Lehen haurtzaroaren gunea – Itxaka etorbidea – 64500 Donibane Lohizune

COPAINS et COPINES haurtzaindegi ttipia

Toki kopurua	10
Zabalik	astelehenetik ostiralera
Ordutegia	08:00etatik 19:30era
Haurren adina	0 eta 6 urte artean
Gutieneko harrera	2 oren

Aurkezpena

Donibane Lohizuneko Copains et Copines haurtzaindegi ttipia establimendu pribatua da. 0 eta 6 urte arteko 10 haur errezibitzen ditu, aldi berean. Harrera erregularra edo noizbehinkakoa izan daiteke, familien ahalen arabera.
Diziplina anitzeko langile talde bat haurrez arduratzen da. Langileak lehen haurtzaroaren adituak dira. Taldea honela osatzen da:

- Zuzendari eta haur gazteen hezitzaile bat
- Haur gazteen hezitzaile bat
- Haur artatzailetza laguntzaile bat
- Lehen haurtzaroaren zaindari bat, lehen haurtzaroko lanbide gaitasun agiriduna

Haurrak familien beharren arabera errezibitzen dira, gutienez astean 2 orduz eta gehienez astean sei egun osoz.

Haurtzaindegi ttipia udan (uztailean eta abuztuan) eta eskola oporretan (salbu Eguberriren eta Urtatsaren arteko astean) zabalik da ere.
Aldiz, besta egunetan hetsia da.

Tokien esleipena
Tokiak horren arabera libratzen dira:

- Haurtzaindegiaren ahalak
- Hartu beharreko familiaren edo haurraren egoera (adb: ahultasuna, elbarritasuna…)
- Aitzinetikako izen ematea gorde den eguna

Prezioak
Haurtzaindegi ttipia pribatua denez, familiek PAJE-cmg (Haur gaztearen harrerarako diru laguntza – Zaintza molderako osagarria) jaso dezakete. Horretarako, diru laguntza hau familien laguntza kutxari eskatu behar diote.
Hola, ordu tasa garbia (familien laguntza kutxaren diru laguntza kendu ondoan) 1.16 €-ren eta 4.55 €-ren artekoa da.
Bazkari eta garbiketa gastuak ordu tarifa horretan sartzen dira. Aldiz, haur esnea eta xatarrak familiek dituzte eman behar.

Argibideak:
Donibane Lohizuneko Copains et Copines haurtzaindegi ttipia
(Béatrice CHARBONNIER anderea)
Industriaren karrika, 11 – Jaldaiko aktibitate gunea – 64500 Donibane Lohizune
09 53 32 19 59 – copainsetcopines@gmail.com